

BILBAO'KO KAI BARRIA

KONDAIRAN

Bilbao'ko portuak beti izan dau garrantzia.

Gaztelako artulea edo lanea eta beste gauza asko Europa'ra Bilbao'ko portua bide zala el-tzen ziran eta Bilbao'ko portutik joan ziran In-glaterrara gure meatz-gaiak, onein ordaiña zan diruagaz, Laba Aundiak egiteko.

Portu ori dala-ta, Bizkaiak eta Euskalerrriak ospe aundia lortu eban erdiarotik aurrera mundu guztian, euskaldunai Bilbao'ko Bizkai'tarrak emoten jaken izena: "Bizkaino de Bilbao".

GAUR

Baiña kondaira joan zan eta arazoak gaur daukaguz bizi-bizi, erantzuna eskatzen.

Europa'ko azoka aundi orren inguruan, Bilbao'ko portu barria etorkizunerako portu lez artzen da.

Gaurko gurariak beteten ba'dira, eta beteko dirala dirudi, gure kaia Europa osoan lenengo-etarikoa izango da eta mundu guztian be ospetsuenetarikoa.

INDAR BARRIA

Euskalerrria ekonomi-giroan egoera larri baten dagoala ezin ukatu.

Laba Aundiak egiteko gure aberastasun aundia ziran meatz-gaiak saldu jakozan, batez be In-glaterra'r, eta orain ara zer diñoskuen: Europa'k ez dauala bear burdin-lantegirik, emen baiño obeak bertan dagozalako, eta gure burdintegiak, Laba Aundiak be euren artean, alboratu egin bear dirala.

Ortik larri-aldi aundia dator, batez be lanba-koen arazoa larritzen dalako eta gure aberria-rentzat txirotasuna datorrelako.

Lanbide orreri eutsi egin bear jako, aspal-dion sindikatoak aldarrikatzen daben lez, baiña baita ondasun-iturri barri batzuk billatu be.

Ondasun-iturri barri bat, Euskalerrriarentzat indar barri bat, Portu edo kai barria litzake.

EGINBIDE EDERRA

Bilbao'ko portu barriaren eginbidea, zora-garria da, ZER onen azalean agertu_dogun iru-diak pizka bat agertzen dauan lez.

Ekonomi-arloan eta munduaren aurrean izango dan ospearen arloan, txalogarria da kai ori.

Baiña atsegin-baratzean beti izaten da su-geren bat. Nik galdera au egingo neuke: Gure euskaltasuna ta abertzaletasuna indartzeko ala galtzeko bidea izango ete da?

Iparraldeko Euskalerrrian, esaterako, irabaz-bide aundia dira txangolariak edo turistak. Baiña lortu ete dabe ango Euskalerrriaren aurrerapenik? Ez ete dira gaur be ango gazteak kanpora joaten, Paris'era batez be, lanaren billa? Irabazbideak bai ta aurrerapenik ez? zer da ori?

Ez ete dau antzeko zerbait ekarriko gure kai ederrak?

Irakurleak, esan leikee abertzaletasun estua dala ori. Ni pozik oker ba'nengo, baiña geroak izango dau itza.